

nik zabalduak diren bi edo hiruekin geldituko gera. *Usoa* eta *Usue*, guretzat. Hartu bezate Ujué, erdal kutsukoak.

Zailtasun berexia idazkera aldetik etorriko zaigu: *Eneriz*, hala *Eneritz?* *Iziar*, hala *Itziar?* *Enekoiz*, hala *Enekoitz?* Hizkuntzalariekin hartu-emanetan egoteko asmoa ba dut; eta azken orduan Euskaltzaindiari berari erabaki bat eskatu behar izatea ere gerta laike.

Euskalerriko Andra Mari guzien izenak ere ezin ditugu bat-batean denak sartu.

Era askotako mugak ditu lanak. Ahal dena egingo dugu, ezin delarik egin nahi dena.

1972. Otsailaren 25ean.

J. M. Satrustegi

## GIZA EMAKUMEEN IZENDEGIA

Igaz, Abenduaren 30-eko Euskaltzaindiaren urteko azken batzarrean, aurtengo lan eta gora-beheren egitarauaz mintzatu ginen eta, *jende izenen bilduma* ginuen begien aurrean. Izan ere, goizeko batzarre denboran euskal izenen agiri bila, ez zen atertu jendea. *Tubal* euskal izen bezala egiztatuko zuen paperra eskatzen zuen batek. *Ibai* ezarri nahi zion bere haurrari beste guraso batek. Hori dela ta, behar beharrezkoa ikusten genuen denok giza-emakumeen izendegi berria.

Lanak ba zituen bere oztopo antzeko koxkak, eta beste edozer baino lehenago, txosten txiki baten bidez, nere asmoa Euskaltzaindiari agertu nahi izan nion. Otsaileko batzarrean, hain zuzen, eman nuen nere iritzia. Izendegi oinarrিতua izan beharko zuela esaten denok batera gentozen. «*Izendegi hau sailka egingo da, zion otsailaren 25-eko erabakiak; lehenengo izendegi ttipia, historikoak, santu izendegikoak eta Andra Mariak*».

Neguaren ondotik uda, eta ereintza egin delarik uzta jasotzeko aroa, udazkena. Urtearen buruan egindako lanaren kontu ematera gatoz gaur gu ere.

Lana luzea izan da eta urria. Liburu eta paper zahar asko ikusi da. Napparoko artxibo nagusiko katalogoa batez ere, bere berrogei ta hamar zenbaki mardulekin. Leire eta Iranzu-ko bildumak ezin bazartu genituen. Juan San Martin-ek ohar asko egin digu eta Donostiako ordezkartizan daukagun Maria Pilar prestuak egunetik egunera agertzen joan diren izenen berri xuxen eman digu. Manu Urresarazu eta Isidoro Baztarrika, Estibaliz-ko Nagusia, izan ditugu Arabakoen berri emaile. Lizundia ere arduratu da eginkizun hontan. Ikusitako iturri nagusien lerrokada ematen da izendegiaren lehen orritan.

Orai arte genituen izendegitako hitzak ahal guzia jasotzen arduratu gera. Askotan, halare, nundik hartuak ziren ez jakitearekin eragozpen haundia izan zaigu. Herriak onartzen dituenak sartu egin ditugu. Arana-Eleizalde jaunen Ixendegiak dakartzkien Nekane, Igone eta abar oso ezagunak dira, baina, legez bazartuak. Oso gutxi aurreratuko genuen oinarrituen lerrokada berean sartuta; legez-gizonen aldetik gaizki ikusia izango zen izendegi berria ere. Nola nahi dela, sartu behar genituen eta sartu ditugu; itzulpena duten izen debekatuekin eraskin bat ezarri diogu bildumari.

Hiru zati izango ditu, beraz: *gizon izenak*, *emakumeenak* eta *legez baztartutako herrikoienak*. Euskal izenak diren aldetik, azen- turik gabe idatziko ditugu. Izan ere, ez dute beti esaera berdina izaten. Estibaliz, Aránburu, berdin ibiltzen dira Estibaliz eta Aranburu bezala.

### *I z e n a*

Lege-gizonen arloan dugu gaur oztoporik haundiena. Haien aurrean indar gehiago izango duelakoan, erderaz eman ditugu xehe- tasun eta argibideak. *Nomenclátor Onomástico Vasco* izendatu dut erderaz; eta neurri bereko hizkiekin, *Euskal izendegia*.

Euskerazko izenburuarekin motz gelditu gerala usteko du norbaitek. Izendegi bat era askotakoa gerta laike: *abereena*, *herri ta lurraldeena* (toponimiakoa), belarrena eta abar. Halare, galtzerik ez dago hortan; izendegia esatean, jende izenak datozkigu gogora eta izendegi guzitan lehena dela adierazten du «Euskal Izendegia» esaera laburrak.

Euskal izen hoién argibidea erderaz emateak ere ez dut uste inor sutuko duenik. Hizki soilak ematen dira gehienetan eta aztertutako liburuen izena adierazteko ezartzen. Euskeraz ala erderaz emanik ez du ajola haundirik, liburuen izena den bezala utzi behar bai da: CAGN, *Catálogo del Archivo General de Navarra*.

Oharrak, txosten hontan euskeraz dihoaz; liburuan, berriz, labur laburra irakurle guziei dagokien eran eta erderaz emanak dira. Epaileen aurrean arrera ona izatea komeni zaigu eta erdaldun gura-soak ere baliatu dezaten.

### *Xebetahunak*

Izendegi oinarritua, berez, urtetik urtera ugarituz joango denaren hasiera baizik ez da. Sartu laizken guziak ez dira hemen; eta barne dagon zenbait ez zuen, behar ba da, hor egon behar. Ez da, halare, horrekin ezer galtzen: bigarren argitaratze batean, eta herriaren joera ikusi ondoan zuzentzeko gauza izango litzake.

Pixkanaka sartzén joatea komeni izango zelakoan, hirehunén bat izén sartzeko asmoan hasi nintzen lanean. Gaurko gure mugak nahiko estuak dira eta kaltegarri gerta zaiken guk estuago hartzea, eta ahal den guzia zabaltzea hobe izango zela ikusi genuén gero. Ba dakit ez direla bat-batean denak erabiltzen hasiko; oraikoz, hor den hirutatik bat bakarrik ahotan ikustea ez litzake gutxi. *Zazpirehun* izén ba dator, eta sakelako liburuxkaren neurrian egin dugu.

Euskalerriko Andra Mari gehienén izénak bilduman dira. Asko ta asko, herri izénekin datoz. Izén ere, *Nagore*, *Eneriz* eta abar sartzén ari dira eta hoiék bezala beste batzuk ere sartu laizke. Jazinto Claveria-ren «Iconografía y santuarios de la Virgen en Navarra» izénko liburuaz baliatu gera. Euskal kutsurik ez dutenak bazturtu egin ditugu: Jerusalén (Artajona), Yugo (Arguedas), Monserrate (Esnoz). Lurdeko eta Pilareko Ama Birjiñak ehuneka ba ditugu. Roncesvalles bera ere, Euskaltzaindian lanaren aurrerapena ikusi ondorean kendu egin da. Ba dira, azkenekoz, belarrientzat gogor egiten direnak: Karraskala (Ribadagua, Alava), Kalezarra (Usurbil), Kabriana (Salcedo). Eta barne direnetan, emakume batek inoiz beretzat hartuko ez duén frango izango da. Denborak esango du.

Andra Mari izenak ez direnetan ere berdin gertatzen zaigu: *Samarra*, *Sudurra* eta *Itsusi* ez zaizkigu egokiak iduritu.

Beste batzuk aldatu egin ditugu: 1910-eko Ixendegian *Gurtzane Rosario*-rentzat ematen zen. *Rosalía*, berriz, *Errosali*. *Garbiñe*, *Purificación*. Orai Errosali eta Arroxali, biak, Rosario eta Rosalía bezala utzi ditugu; bat ala beste erabili daike. Agurtzane, Adoración. *Garbiñe*, *Inmaculada*. *Garbikunde*, *Purificación*.

Giza emakumeentzat berdin balio izan duten hitzak ere ba genituen. Legez, bat bestearengandik berextera behartuak gaude ta, konponketa txikiren bat egin behar. *Zuri* ta *Zuria* Erdi-arogan gizonetzkoena da. Denbora berean, hala ere, *Andra Mari Zuri* eta *Zuria* frango ba zen gure artean. Nik neronek etxe sarreran dutana Urdiain-go Andra Mari *Zuria* da, eta festa haundia egin ohi zioten herrian Uztailaren bian. Erderaz berdin gertatzen zen Corpus, Rosario, Trini eta beste batzuekin. Esan dena, legez eragotzia da.

Hori dela ta, asko mintzatu gera goizeko batzarrean, eta azkenik iritzi hontara iritxi gera: *Zuri* ta *Txuri*, *Txurio* ere ontzat ematen dela izan laizke gizonetzkoenak. *Zuria* eta *Zuriñe* utzi laizke emakumeentzat. Herriak ez du oso gogoko -a hizkiarekin bukatzen den hitza gizonari itsastea. Erdal kutsukoa izango da, ala jatorra; baina hori gertatzen da eta ez du balio horren aurka joatea.

Berdin gertatzen zaigu Urdin, Urdina; Eder, Ederra; Nabar, Nabarra eta beste batzuekin. Gizon, nahiz emakumeentzat hartu laizke eta hartu izan dira. Berextekotan, *Urdin*, *Nabar*, *Eder* eman genezazke giza semeendako; eta Urdina, Nabarra, Ederra emakumeendako. Iritzi bat besterik ez da eta, gero ere, arrera txarra izango balu noiznahi aldatu laike.

### *Etorkezuna*

Geroari buruz ez ditugu gauzak errazegi ikusten. Borroka latzean sartuak gabiltz eta oztopoak izango ditugu. Izenak oinarritu ala ez, begi txarrez ikusi nahi duenak zeharka begiratuko du. Eta egia esan, euskal izen kontuan gogor daude lege-gizon asko.

Orai ematen dugun urratsak berea egingo du, halare. Euskaltzaindiaren itzala ontzat ematen duten gizon jatorrak ba dira, eta

orai arte bezala, Iruñen baztartua Donostian onartua gerta laike. Gure gain dugun legea zahar porrokatua da gaixoa; bazter guzitatik itaxura dario eta horri esker aurreratu daike zerbait.

Agintari nagusiei bilduma eskeintzera joatea komeni litzake, behar ba da. Sar-bide bat prestatu.

Euskaltzaindiaren lana bezala argitaratu behar ote dugu? Ala bere babesean? Otsaileko txostenean hogeit hamar mila ale aterako genituela aurreratzen nizuen. Iruñeko La Baskonia diru-txeak berrogei ta hamar mila atera nahi du. Euskaltzaindiaren izena zabaltzeko bide egokia deritzait.

1972-IX-29

*J. M. Satrustegi*